

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresaren jarduera garrantzitsuena edo funtsezko jarduera zerbitzu bat ematea da. S&PP Representing Agency-k zerbitzu pertsonalizatua emango du, enpresan dauden bezeroen beharretara egokituko gara. Hala ere, norbaitek gure enpresaren nondik norakoak ezagutu nahi baditu, sare sozialak baliatuko ditugu.

Gure enpresak funtziona dezan, funtsean plataformak eta sareko jarduerak beharko ditugu. Hau da, gure bezeroekin komunikatzeko plataforma desberdinak erabiliko ditugu (bezeroek aukeratuko dute zein plataforma erabili), horien artean hauek aurkituko dira: Meet, Discord, Zoom... Hala ere, bezeroak beharrezkoa ikusten badu, aurrez aurreko hitzorduak ere eduki ditzakegu. Enpresa eta esports talde ezberdinekin hitz egiteko ere tresna hauek erabiliko ditu.



Lehen aipatu bezala, esport-en eta sortzaile digitalen munduan manager kontzeptua guztiz finkatu gabe zegoela konturatu ginen. Mundu honetako pertsona ezberdinen hizketaldiak entzun ondoren, manager kontzeptuan enpresa serio eta indartsu baten beharra zegoela eta guar egun lan hori burutzen dutenak beraien lana zuzen egiten ez dutela entzun genuen. Hau guztia kontuan harturik, aukera bikaina iruditu zitzaigun proiektu hau martxan jartzea.

Gainezko lehiakidengatik bereizten gaituena, gure enpresak bezeroei eskainiko dien gertutasuna, segurtasuna eta beraien interesen defentsa izango da.

Lehen aipatu bezala, mundu digitalean lan egiten duten manager askok ez dute jende gehienaren oniritzia eskuratzen, askok beraien interesak bezeroarenaren aurretik jartzen dituztelako. Adibidez, fitxaketen garaien, ehuneko kopuru handi bat berarentzako hartuz, berak nahi duen taldeekin hitz egin... Gure enpresak interes horiek alde batera utzi eta bezeroen nahiak jarriko ditu aurretik. Honen guztiaren ondorioz, diru sarrerak piskabat txikitu daitezke, baina, bezero gehiago lortzeko aukera zabalduko liguke jarrera horrek.

